

GAZTEENTZAKO MATERIALA

“ERDU - TE INVITO”

1. Sarrera (oinarriak)

- Kanpaina honetan, nabarmendu nahi dugu zein garrantzitsua den familia gure harreman, lotura eta zaintzarako. Familia funtsezkoa da, eta hala ikusi dugu krisi sasoi honetan. Familiak handitu egin dira, jendea gertu egon baita auzoko jendeari laguntzeko: nagusiei, desgaitasunen bat dutenei, lanera joan beharra izan dutenei, edo hilabete amaierara heltzeko zailtasunak izan dituztenei.
Jesusek jendea maitatu eta zaintzera animatzen gaitu; baina ez soilik senide eta lagunak. Ezagutzen ez ditugunak ere zaindu behar ditugu. Izan ere, “Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue?” (Lucas 6:32).
- Aurten Gabonak egoera zail eta gogor baten erdian helduko zaizkigu. Pandemia hau biktima asko uzten ari da, zentzu guztietan, baina guk itxaropenez hartu nahi dugu sasoi hau, betiko moduan, datorren urteak dakarren ziurgabetasunari aurre egiteko. Aurten distantzia mantentzeko eskatzen ari dira, ez elkartzeko, beste pertsona batzuekin ospakizunik ez egiteko, musurik ez emateko... beraz, inoiz baino kontzienteago izan behar dugu daukagunaz, eta eskerrak eman: Bizitza, alaitasuna eta itxaropena partekatu. Argia izan behar dugu, eta familia moduan aurrera egin, Jainkoaren ondoan.

2. Dinamikak

Dinamika 1

Kanpainaren kartela hartuko dugu. Paperean eman daiteke, edo proiektatu. Minutu batzuetan kartelari arretaz begiratzeko eskatuko zaie, elementu bakoitza ikusiz, pertsona bakoitzari erreparatuz, mahaiaren banaketari arreta jarritz, eta honakoak komentatzeko dira:

- 1.- Zer pentsatzen duzu eszena honen inguruan? (elementuen deskribapenaz harago, Gabonak islatzen al ditu? Zein objektu, pertsona eta keinutan ikusten duzu Gabonak direla?
- 2.- Uste duzu elementuren bat sobera dagoela? Zerbaiten falta somatzen duzu irudi honetan?
- 3.- Zer eramango zenuke mahai horretara? Nor eramango zenuke?

Praktika bideratzen duen pertsonak kontuan hartzeko. Hausnarketa bideratzeko elementuak: Familia jaiotzan dago irudikatuta, ogia eta ardoa daude (eukaristia), kandela argiaren sinbologia da, telefonoa ez daudenekin komunikatzeko modua da (deia, bideo-deiak...), hemengo eta beste leku batzuetako jatekoa (kultura aniztasuna, mugarik gabe), familia handiago baten irudikapena (auzokide eta lagunak gonbidatzen dituen familia), mahai irekia, harrera, izaera abegitsua, balkoi irekia konfinamenduan izandako topagune gisa, izarra gidari eta egiteko gisa, itxaropen sinbolo.

Dinamika 2. Hainbat jolasa

HAINBAT jokoak balioetan hezteko eta adimen emozionala sustatzeko proposamen ludiko eta dibertigarria da, taldean egiteko.

Kidenda, Jakinbide edo Kooperan eros daiteke. On line ere jolas daiteke: www.hainbatjolasa.org



3. Otoitza

Dinamikan partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.

Munduaren argi

Iluntasunean...
nahigabe eta hotzez
betetako negua agurtzen dauan
irribarrea bizten da.
Hozmindutako gorputzak
suspertzen dabezan
suak bizten dira.
Berba samurrak
isiltasun zapaltzailea hautsi
eta, azkenean, alkarrizketa
sortzen da borborrean.
Itzaletatik mamu eta bildurrak
uxatzen dituan
argiontzia garretan da.
Lagun bik bakeak egiten dabez
musu batez, eta atzean izten dabez
ezinikusi eta zauriez
betetako urteak.
Egoki hornitutako mahaiak
ez da inor kanpoan geratzen.

Barre eta su gara,
hitz eta argiontzi,
musu eta mahai,
munduaren argi, anai-arreba,
lurrean argi egiteko jaiok.

Amen.

Jose Maria R. Olaizola sj



4. Konpromisoa

Nola izan gaitezke argia eta itxaropena beldur eta ziurgabetasunez beteriko sasoi honetan? Pertsona bakoitzak txartel edo post-it bat hartuko du, eta etxean, ikastetxean edo lagun artean Gabonetan argia eta itxaropena helarazteko hartuko duen jarreran pentsatuko du. Taldeko ekintzaren bat ere pentsa daiteke, parte-hartzaile guztien ideiak kontuan izanda.

Bideratzaileak pista batzuk eman ditzake: Zein egoera ezin izango diren eman, edo zein pertsona ezin izango ditugun ikusi, pandemiagatik, eta zer egin dezakegun gauzak beste era batera egiteko eta gozatzeko, esaterako: musukoei irribarreak egin, lagunekin topaketa birtualak egin, auzoko edo herriko pertsona babesgabeenei laguntzeko kanpainetan parte hartu, gurasoek ematen diguten “paga” besteen zerbitzura jar dezakegu, leku berezi batzuetan kandelak jarri... Askatu irudimena!

Ekintza guztiek COVID kutsatzeak saihesteko neurriak errespetatu behar dituzte.

Dinamizatzaileak gogorarazi behar die Gabonen ostean pertsona bakoitza bere txartel edo post-itarekin itzuli beharko dela, eta taldeari kontatu nola pasa dituen Gabonak, zein zailtasun izan dituen bere konpromisoa burutzeko...

Amaitzeko, kanpainaren zorion-bideoa jarri.

Zorionak eta Urte Berri On!

erdu te invito

Bizitza zaintzen
Cuidando la vida

"Egizue abegi ona batak besteari". 1Pe 4, 9

"Practicad de todo corazón la hospitalidad". 1Pe 4, 9

